

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernu zentralak Foru Gobernuari baieztatu dio PHTak Nafarroan egiten duen bideko ingurumen-adierazpenak baliogabetzen dituen epaiaren aurkako helegitea jarriko duela

Izapide judiziala ustez irailaren 9a baino lehen egingo dute, abuztua ez baita kontuan hartzen epeak jartzeko

Lunes, 05 de agosto de 2013

Gobernu zentralak Nafarroako Gobernuari baieztatu dio Madrilgo Auzitegi Nagusiak ekainaren 18an emandako epaiaren aurkako kasazio-helegitea jarriko duela. Aipatu Auzitegiak erabaki zuen, hain zuzen, Administrazio Nagusiak Prestazio Handiko Trenak Nafarroan egingo duen bideko obretarako izapidetu eta onartu zituen Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenak (IIA) iraungita zeudela.

Epaia irmoa ez denez, helegitea jar daiteke, jakinarazi eta, gehienez, hamar egunera. Abuztua hilabete baliogabea denez, helegitea seguru asko irailean aurkeztuko dute, hilaren 9a baino lehen, egun horretan amaitzen baita helegiteak aurkezteko epea.

Sustapen Departamentuak AHTaren bi proiektuen gainean (Iruñeko eskualdeko begiztaren eta Castejonetik Iruñeko eskualderako zatiaren gainean) egindako administrazio-espedienteetan Sustapen Ministerioaren txostenak daude, eta txosten horietan Nafarroako Gobernuari argitu zitzaion, bere garaian, obra horien ingurumen-ebaluazioaren balioari eusteko legezko izapideak eginda zeudela (Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren aurrean).

IIAen inguruko aipamenak legeetan

Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko hainbat aipamen daude legeetan, zehazki lau, urte hauetan: 1986, 2006, 2008 eta 2010ean. PHTaren IIAk egin zirenean, 2004an, 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua zegoen indarrean, eta Dekretu horrek ez zuen aipatzen adierazpen horiek iraungitzen zirenik. Gero, apirilaren 28ko 9/2006 Legean, artikulua aldatu eta zehaztu zuten adierazpenek bost urterako balioko zutela; Lege horrek, ordea, ez dauka 2006. urtearen aurreko IIAekin zer egin behar den zehazten duen xedapen iragankorrik.

2008an 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, egin zuten, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzeko; Lege horretan ere ez zuten adierazi, ordea, 2006. urtearen aurreko IIAekin zer egin behar zen.

Azkenik, martxoaren 24ko 6/2010 Legearen bitartez, aipatu testu bategina aldatu eta zehaztu zuten Ingurumen Inpaktuaren Adierazpenak

hiru urtean iraungiko zirela, Legea indarrean jarritako egunetik kontatzen hasita, baldin eta ingurumen-
inpaktua ebaluatzeko oinarritzat hartutako funtsezko elementuak aldatu ez baziren. Gobernu zentralak
2010eko abenduan jakinarazi zion hori Sustapen Departamentuari; beraz, IIAk ez daude iraungita.